

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Hasierako onespina ematea hiri lurren balio gehikuntzari buruzko zerga-ordenantzaren aldaketari

Udalbatzak, 2023ko maiatzaren 10ean egindako osoko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespina ematea ondoko zerga ordenantza honen aldaketari:

Hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen zerga ordenantza, Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 27ko 12/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretura moldatzeko, zeinaren bidez Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren Foru Arauaren testu bategina aldatzea onetsi baitzen. Testu hori irailaren 29ko 4/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen.

Espedienteak udal idazkaritzan egongo dira ikusgai hogeita hamar egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, epe horretan interesa dutenek egokitzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Erabaki hau behin betikotzat joko da, erreklamaziorik aurkezten ez bada. Erreklamazioren bat badago, beste erabaki bat hartuko da horren gainean.

Argitara ematen da, Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 16. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruña Oka, 2023ko maiatzaren 15a

Alkate-lehendakaria

MIGUEL ÁNGEL MONTES SÁNCHEZ